

Nazioarteko Online Ikastaroa

**“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK.
Alternatibak, ikuspegi partekatuak eta
prozesu kolektiboak eraikitzen”**


2. edizioa

(2020-2021 Ikasturte akademikoa)

2021

Gida Didaktikoa – 6. Modulua

Botere korporatiboa lurraldeei lapurretan. Megaproiektuei herri
erresistentzia egiteko gakoak.



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Finantziatzaia:



Gonzalo Fernández

OMAL | Observatorio de Multinacionales
en América Latina

15-03-2021



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatuak eta prozesu kolektiboak eraikitzen”
(2. edizioa)

6. Modulua: Botere korporatiboa lurraldeei lapurretan. Megaproiektuei herri erresistentzia egiteko gakoak

2

Moduluaren helburuak

- 1.- Enpresa transnazionalak gure gizarte globalean duten egitekoari buruzko hausnarketa kritikoa egitea, batez ere, pandemia garaia bizi dugula kontuan izanda.
- 2.- Megaproiektu korporatiboak aztertzea, eraldaketa arloko lurralde-prozesu orok neurri handiago edo txikiagoan ulertu beharreko fenomeno moduan, eta hainbat ikuspegi politikotatik.
- 3.- Megaproiektuak ezartzerako orduan jarraitu beharreko irizpide korporatiboen eta herri mailan horiei erantzuteko moduluaren inguruko eztabaida bideratzeko tresnak eskura izatea.

Moduluaren sintesia

Modulu honetan gako politiko batzuk lantzen dira, bereziki. Historikoki herri, komunitate eta mugimendu sozialek erabilitakoak izan dira, megaproiektu korporatiboek aurre egiteko, eta gaur egun lurraldeetan kapitala erreproduzitzeko tresna nagusietakoak dira. Horraino heltzeko, moduluak kapitalismoaren egungo egoeraren azterketa bat egingo du, lehenik eta behin. Une honetako ezaugarriak krisia, fase gogorrago bat eta botere korporatiboaren protagonismoa dira. Kapitalaren eta bizitzaren arteko talka are gehiago indartzen da horrela, eta lurralde mailan ikusten da hori, megaproiektuak lehentasunezkoak baitira agenda politiko guztietan. Bigarrenik, eta megaproiektu horien eraginak eta enpresen ohiko funtzionamenduak aztertu ostean, erreferentzia esparru bat definituko dugu, eta 10 gako politiko emango ditugu. Gure ustez, herri erresistentziaren estrategiei eutsi ahal dieten gakoak dira.

Horrela izanik, inork ez du zalantzan jartzen gaur egun enpresa transnazionalak duten boterea. Ekonomikoaz gain, maila kulturak, politiko eta juridikoan proiektu daitezke. Indarrean dagoen sistemaren aspektu guztiak defendatzen dituen sare sendo bat dago eraikita, eta horren erdigunean daude multinazionalak, tokiko, estatu mailako eta alde anitzeko erakunde askoren babesarekin. Sistema horrek une kritikoa



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatuak eta prozesu kolektiboak eraikitzen”
(2. edizioa)

6. Modulua: Botere korporatiboa lurraldeei lapurretan. Megaproiektuei herri erresistentzia egiteko gakoak

3

bizi du egun, izan ere, hurrengo hamarkadetan hazkunde ekonomikoa izateko aukera gutxi ikusten dira, eta, horretaz gain, aldaketa klimatikoa eta material eta energia iturriak agortzearen arazoa ere hor dago. Erronka eta paradoxa nagusia da nola heldu akumulazio ziklo berri bati, oinarri fisiko txikiago batekin, ahultasun klimatiko eta finantzarioak markatutako testuinguru batean.

Horri aurre egiteko, botere korporatiboak agenda berritu du eta kapitalaren erreprodukzioa egoera historiko horretara egokitzeko ahalegin desesperatua egin du. Transnazionalek XXI. mendeko kapitalismoaren proiektua sustatu nahi dute horrela, eta maila globaleko eraso merkantilizatzaile gogor bat egin dute. Kapitalak ez badu aurkitzen akumulaziorako bide egonkorrik, merkataritza eta nazioarteko inbertsioarekin lotutako oztopo sektorial, politiko eta geografiko oro hautsi egin behar da, bere aldeko merkatu autoerregulatu eta ultraerregulatu bat blindatuz. Eraso horrek desgobernura, amildegi sozialera edota kolapso ekologikora bagaramatza ere, planetako bizia arriskuan jarritz.

Kapitalaren eta bizitzaren arteko talka hau larriagotzen ari dela ikusita, lurraldeak borroka politikorako eremu estrategikoak dira. Ondasun naturalak, energia, hirigintza, elikadura, zerbitzuak, erosketa publikoa eta abar, XXI. mendeko kapitalismoaren agendan bereziki preziatuak diren merkatu aukerak dira. Enpresa handiek sistematikoki garatu eta planifikatzen dituzte mota guztietako megaproiektuak, lurraldeetan eraso korporatiboa egiteko funtsezko tresna bihurtuta. Tokiko izaerak gure eguneroko bizimoduarekin lotuta garatzen ditugun estrategiak ditu, batetik; eta, bestetik, kapitalaren egungo agenda tokiko mailan ezartzen da, batez ere.

Dinamika hori, bestalde, 2020ko pandemia egoeraren ondorioz larriagotu egin da. Enpresa asko itxi egin behar izan dira; kapitalaren zentralizazio eta kontzentrazioa gertatu da; gerra ekonomikoa gordinago bihurtu da; ekonomia digitala eta kapitalismo berdea berriz ere kokatu dira; estatu mailako izaera korporatiboa harrapatu da... horiek dira krisi sakon baten testuingurua definitzen duten dinamiketako batzuk, eta Covid19ak hori larriagotu baizik ez du egin.



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatuak eta prozesu kolektiboak eraikitzen”
(2. edizioa)

6. Modulua: Botere korporatiboa lurraldeei lapurretan. Megaproiektuei herri erresistentzia egiteko gakoak

4

Amaitzeko, megaproiektuen aurrean bizitza defendatzen duten herri mugimenduak sendotzeko gako politiko batzuk laburbilduko ditugu, izan ere, bizi garen une honetan, gero eta beharrezkoagoa da arlo horri ekitea. Gaitasun kolektibo batzuk lehenesten dituen erreferentziazko esparru bat da abiapuntua. Testuinguru orokorrari erantzuteko eta herri, komunitate eta gizarte mugimenduen enpresa handien aurka egindako lana ulertzeko gaitasunez ari gara. Hori horrela izanik, trantsizio ikuspegi bat txertatu nahi dugu, egunerokotasunetik aldaketa sakon baterako bidea irudikatzeko; begirada inklusiboak posizionatzeko gaitasuna, proposamen teoriko eta politikoak gurutzatuz, eta herri mugimenduaren erresilientzia sendotzeko gaitasuna, epe erdi eta luzera lan egiteko asmoz. Hiru gaitasun horiek gure erreferentzia esparruan daude jasota, *Epistemologías del Sur* lanean, ahotsik ez dutenei ahotsa emanez - *sociología de las ausencias* -; proposamenen potentzialtasuna eta dinamismoa osotasunean aztertuz - *sociología de las emergencias* -; eta agenda bateratuak eraikitzeke testuinguru eta subjektuen arteko esperientziak partekatuz - *ecología de saberes*.

Ikasleen egitekoak

- Irakasgaiaren oinarritzko testua arretaz irakurtzea.
- Testean egiten diren galderei erantzutea.
- Webminarreko eztabaidan parte hartzea.

Kronograma orientatiboa

Moduluak zazpi eguneko iraupena dauka: **martxoak 15etik 21era**, sei orduko karga osoarekin. Denboraren antolaketa oso desberdina izango da pertsona bakoitzarentzat, baina esan dezakegu denboraren honako banaketa egin dela, egunean ordubate ematen dela kalkulatuta:

21/03/15 astelehena	21/03/16 asteartea	21/03/17 asteazkena	21/03/18 osteguna	21/03/19 ostirala	21/03/20 larunbata	21/03/21 igandea
- 6 Gida	- Testuak	- Testuak	-	- Testari	- Testari	- Testari



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatuak eta prozesu kolektiboak eraikitzen”
(2. edizioa)

6. Modulua: Botere korporatiboa lurraldeei lapurretan. Megaproiektuei herri erresistentzia egiteko gakoak

didaktikoaren irakurketa	irakurtzea	irakurtzea	Webminar	erantzutea	erantzutea	erantzutea
- 6 moduluaren bideoak ikustea	- Web baliabide eta beste laguntza material batzuk	- Web baliabide eta beste laguntza material batzuk				- 6 moduluaren foroaren amaiera

5

Oinarrizko testua euskaraz

<https://territoriolab.org/wp-content/uploads/2019/12/Mod-6-EUS.pdf>

Bestelako baliabide batzuk, oinarrizko irakurketaz gain

Fernández (2020): El callejón del gato capitalista. Disputas frente al poder corporativo en la nueva normalidad:
<http://omal.info/spip.php?article9282>

Fernández, Gonzalo (2016): Alternativas para dismantelar el poder corporativo. Recomendaciones para gobiernos, movimientos y ciudadanía, Hegoa. Hemen eskura daiteke:
<http://omal.info/spip.php?article8246>

García-Torres (2018): El Ibex 35 en guerra contra la vida:
http://omal.info/IMG/pdf/2018_el_ibex_35_en_guerra_contra_la_vida.pdf

González, Casado y Fernández (2020): Fondos públicos, negocios privados: <http://omal.info/spip.php?article9110>

Moreno (2020): Trampas del poder corporativo: maquillaje violeta y mercantilización de las luchas: https://www.sof.org.br/wp-content/uploads/2020/08/Cr%C3%ADtica-feminista-ao-poder-corporativo_ES-Pronto.pdf



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatuak eta prozesu kolektiboak
eraikitzen”
(2. edizioa)

6. Modulua: Botere korporatiboa lurraldeei lapurretan. Megaproiektuei herri erresistentzia egiteko
gakoak

Bideoa:

OMAL (2017): “¿Adónde va el capitalismo español?: Alternativas al
poder corporativo”, hemen eskuragarri:
<http://omal.info/spip.php?article8642>

6